



ALDEZ AURREKO KONTSULTA, HONI BURUZKOA:

**ARAUGINTZAKO FORU DEKRETUAREN PROIEKTUA, AZAROAREN 20KO 64/1989 FORU ARAUAREN,
ARABAKO TASA ETA PREZIO PUBLIKOENAREN, TESTU BATERATUA ONARTUKO DUENA**

Maiatzaren 23ko 29/2017 Foru Dekretuaren, xedapen orokorrak egiteko prozedura eta araugintza teknikari buruzko jarraibideak onartzen dituenaren, I. eranskineko 9. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, eta xedapen arauemaileak prestatzeko prozeduran herritarren parte hartzea hobetzeko helburuarekin, goiburuan aipatutako aurreproiektua/proiektua prestatu aurretik kontsulta publikoa egin behar da; kontsulta horretan iritzia azaltzeko eskatu behar zaie etorkizuneko arauaren eragina jaso lezaketen herritarrei eta ordezkagarritasun handieneko erakundeei, honako gai hauek direla eta:

- Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak,
- Onartu nahi den arauaren beharra eta egokitasuna,
- Arauaren helburuak.
- Ordezko konponbideak, araugintzazkoak zein araugintzaz bestekoak.

Aurrekoa betez, kontsulta bat planteatzen da, Arabako foru sektore publikoak ezarri beharreko **tasa eta prezio publikoen gaur egungo arau esparrua** argitu, harmonizatu eta **bateratu** behar duen etorkizuneko xedapenaren eragina jaso lezaketen herritarrei eta ordezkagarritasuna duten erakundeei beren iritzia azal dezaten eskatzeko.

Herritar, erakunde zein elkarteek, egoki baderitzote, galdera sorta honetan planteatutako alderdiei buruz duten iritzia adierazi ahal izango dute, **2017ko AZAROAREN 14ra arte**, aurrezkontsultak@araba.eus helbide elektronikoko postontziaren bidez.

KONPONDU ARAZOAK	NAHI	DIREN	
			<p>Otsailaren 8ko 1/2017 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoaren gardentasun, herritarren parte-hartze eta gobernu onarenak, zeina ALHAOn argitaratu baitzen 2017ko otsailaren 20an, azken xedapenetatik bigarrenean Arabako Foru Aldundiari agindu zion, gardentasunaren eta segurtasun juridikoaren printzipioen berariazko adierazpen gisa, <u>bere antolamendu juridikoko arauak berrikusi, sinplifikatu eta, hala behar denean, bateratu zitzala</u>, arau esparru laua, argia eta gutxi sakabanatua lortzeko, herritarrek erraz ezagutu eta ulertu ahal izango dutena.</p> <p>Azaroaren 20ko 64/1989 Foru Araua, tasa eta prezio</p>



	<p>publikoena, da berrikusi beharreko foru arauetako bat, aspaldikoa delako eta aldaketa asko egin zaizkiolako:</p> <ul style="list-style-type: none">- Zuzenean, zerga araudia aldatzearen bidez.- Zeharka, batetik, Arabako foru sektore publikoak egin beharreko jarduera eta zerbitzuen arau esparrua aldatzearen bidez eta, bestetik, "foru sektore publikoa" kontzeptua bera definitzeko arau esparruan egindako lege aldaketen bitartez.
ONARTU NAHI DEN ARAUAREN BEHARRA ETA EGOKITASUNA	<ul style="list-style-type: none">✓ Foru arau horren azken xedapenetatik bigarrenean jasotako agindua bete behar da, eta araudia bateratzeko prozesu horri berehala ekin behar zaio.✓ Abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak, Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta lege araubidearenak, 62. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoarekin bat etorri egin behar da.✓ Eta, hori egiteko, Foru Gobernu Kontseiluari baimena eman behar zaio, azken xedapenetatik bigarrenean jaso bezala, <u>azaroaren 20ko 64/1989 Foru Araua, tasa eta prezio publikoena, behar bezala erregularizatuta, argituta eta harmonizatuta bilduko duen testu bateratua</u> onar dezan, 1/2017 Foru Araua, gardentasunarena, indarrean sartzen denetik hasita urtebeteko epean, haren indarraldiak eta egin zaizkion aldaketa ugariak berrikustea beharrezko egin baitute.
HELBURUAK	<p>Honako hauek egitea:</p> <ol style="list-style-type: none">1. Azaroaren 20ko 64/1989 Foru Arauaren, tasa eta prezio publikoenaren, indarreko testuaren lege baterakuntza.2. Testu horretako xedapenak argitu.3. Gainerako zerga arauekin harmonizatu eta bateratu, bai eta Arabako foru sektore publikoaren administrazio jarduna eta definizioa aldatu duten prozedurazko eta funtsezko arauekin ere.
ORDEZKO KONPONBIDEAK, ARAUGINTZAZKOAK ZEIN ARAUGINTZAZ BESTEKOAK	<p>Ordezko konponbidea da ez betetzea otsailaren 8ko 1/2017 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoaren gardentasun, herritarren parte-hartze eta gobernu onarenak, azken xedapenetatik bigarrenean emandako agindua.</p>